

AITOR ETXEBARRIA, MUSIKARIA

# “Elektronikaren industriarekin desliluratua bukatu dut”



Munduko bazter ugaritan utzi du bere marka musika elektronikoko musikari eta DJ bezala; ezabaezineko lorrata da El Txef-A-rena, baina aldi batez bere alderdi hori isilarazi du, barneko musikari heterodoxoari ate-leihoak zabaltzeko. Markak filmerako egindako soinu bandatik abiatu eta soinu unibertso propioa eraikitzen hasi da Aitor Etxebarria. *Nihilism Part I* diskoarekin ekin dio ibilari. Noraino iritsiko ote?

 GORKA EROSTARBE LEUNDA  
 DANI BLANCO

**E**tetik musika estudiora duen bidea baino luzeagoa egingo du musikaren munduan dagoeneko Aitor Etxebarria (Gernika, 1985). Koronabirusak gizartea eta kaleak aztoratu ditu, bakartu, eta orain bizikletan egiten du etxetik estudiorako bidea, egiten duenean. Lanean ari baita orain ere, udan filmatuko den pelikula ingeles baterako soinu banda prestatzen. Elkarrizketa dezentez lehena egingo da, ordea, Donostiako Dock of the Bay jaialdian soinu banden sorkuntzaz hitzaldia eman zuenean, urtariraren erdialdera. Tabakaleran izan zen solasaldia, artean birusaren izena buruz

ez genekienean. Elkarrizketa haren osagarri modura, lau galdera egin dizkiogu Etxebarriari, egoera berriak hartaratu. Horiekin hasiko dugu elkarrizketa.

## **Birusak azaleratu du errealtate erdi-gorde bat, musikariak, oro har, prekarizatuak zaretela?**

Bai, egia esan, Euskal Herrian sormenetik, kulturatik bizitzea ez da erraza. Zenbat artista gaude, daude, lan pila bat egiten oso, oso, oso baldintza eskasetan? Gero, telebistan edo egunkarian agertzean ematen du sekulako bizi eroso daramagula. Egia da, Espainiako Estatu-ko beste zenbait lekurekin konparatuz, laguntza dezente dauzkagula hemen, baina Europako beste herrialde batzuekin alderatuta gure baldintzak oso eskasak dira; normala da sortzaile asko Berlinera edo Londresera eskapatzea. Askotan zaila da arte sorkuntzara zure energia guztia ehuneko ehuneko bideratzea, eta kasu askotan pertsona oso sortzaileak, ezinbestekoak direnak gure kultura aberatsagoa izateko, eta jendearen gogamena irekitzeko, beste lan mota batera joan beharrean egoten dira... oso tristea da, benetan.

## **Itzalaldi digitalean parte hartu zenuen: halako ekintza gehiago egin beharko duzue?**

Protestatzea, apur bat, beti dator ondo. Nahiko gizarte akomodatuan bizi gara, eta horrelako gauzek gutxienez energia diferente bat sortzen dute gure barruan, eta komunitate esperientzia berri bat. Garbi dago egoerak ez badu hobera egiten, zerbait potenteagoa egin beharko dugula!

## **Paradoxikoki, aldi baterako, sarean eman beharko dituzue emanaldiak? Pentsatu duzu zerbait?**

Ez daukat argi etxeko emanaldien kontua. Alde batetik positiboa deritzot, eta pozik jartzen nau jendearen interesak, baina beste alde batetik, ez dakit gizartearen parte handi bati ez gatzaitziona ari ematen gure lana dohainik. Nire dudak ditut eta horregatik ez nabil gauza asko egiten *online*. *Berria*-rako emanaldia egin nuen, errespetu handia diodalako, eta gogoan nuelako idatzi zidan jendeari abesti batzuk oparitzeko, baina dudak direla-eta ez dakit zer egingo dudan hurrengo asteetan. Gainera konposaketa lanetan nabil bi film berritarako, eta horrek ez dit denbora asko ematen ganorazko zerbait egiteko.

## **Konfinamenduak, isolatzeak, balio izan dizu sorkuntzarako, edo hori mito bohemio bat baino ez da eta burua beste gauza batzuetan izan duzu?**

Bi pelikularako musika konposatzen ari naizenez, kaleko energia baxu honek asko lagundu dit gehiago kontzentratzeko. Egia esan, oso-oso pozik nabil etxean zein estudioan konposaketa lanetan. Egunotan, segur aski, ez banitu edukiko film hauek eta zuzendariekin daukadan lan harremana, ardoa edaten eta gazta jaten pasatuko nituen egunak. Askok lagundu dit fisikoki eta emozionalki egiteko foku bat edukitzeak.

## **Zure azken diskora etorrira: zer da nihilismoa musikan?**

Nire bizitzan egon zen bolada bat irakurtzen nuen ia gauza bakoitzeko nihilismo hitza agertzen zena, ia obsesiboki. Nihi-



lismoak esan nahi duenez harago dagoen zerbaitetan ez sinistea, musikara eramaten dut eta laguntzen dit gauzak lasaiago hartzen eta egiten. Nire buruari esaten: “Ez dago helburu handirik, ez dago helmuga finkorik, utzi eramaten”. Horrek lasaitasuna eman dit. Gazte hasi nintzen musikaren munduan. Arin joan da bidea, eta lagundu dit baretzen. Ez nuke esango nihilista naizenik, baina dioenarekin bat nator hein handi batean.

### **Dena oso azkar egin duzu.**

***Nihilism part I*-eko kantak, ordea, denborarekin konposatu dituzu. Bost urteko tartea hartu baituzu. Denbora hartu duzu.**

Bai, denbora hartzea oso garrantzitsua da. Ni nentorren musika elektronikoa-ren mundutik, abiada beteko mundutik. Hiru-lau hileroko EP bat ateratzea ohikoa da mundu horretan, orain hori gainerako musika esparruek ere kopiatu dute: rockak, popak, klasikoak eta beste. Badakizu, bizirik egoteko sare sozialetan egon behar duzu, eta ez badaukazu agerpenik sareetan, hedabideetan, ez zaude bizirik. Ez zara. Hala dirudi. Ezin zara egon urtebetez geldia, bestela desagertu egiten zara. Akaso Ipar Euskal Herrian ez da horren bestekoa presio hori *intermittents* figurari esker, baina Hegoaldean gehiago nabaritzen da. Neu musikatik bizi naiz, baina azken urteetan erritmoa jaitsi dut, nire beste aldea, konposatzailearena, gehiago landu ahal izateko. Hori bai, ez dut erabat utzi, honetatik bizi naizelako. Jendeak erabat lotzen nau musika elektronikoa-rekin, baina oraintxe apenas entzuten dudana, eta pila bat gustatzen zait rocka, klasikoa, jazza, esperimentalak...

### **Zergatik konposatzen duzu?**

Bada, musika gustuko dudalako eta nire ibilbide mediatikotik harago musika lantzeko gogoia nuelako. Hasi nintzen konposatzen jakin gabe zer aterako zen, eta hortik aurrera pixkanaka bidea egiten joan naiz. Gero kasualitatea izan da, helbururik gabe hasi eta inoiz argitaratu dudana zigilurik garrantzitsuenean atera didatela diskoa.

### **El Txef-A-k ezkutatu egin du Aitor Etxeberrriak barruan zuen konpositorea?**

Bai, nik uste uste dut baietz. Inertziarekin aritu naiz bolada luze batean. Neure buruari esaldi topiko hori esaten nion: “Dena ondo badoa, zertarako aldatu?”. Eta neure buruari ere egin izan diot errie-



ta: “Ondo bizi haiz musika elektronikoa eginez, batetik bestera bidaiatuz, arazo ekonomikorik gabe... eta zergatik hasi beste zerbaitetan?”. Sartu naiz marroi handi samar batean, musikari askorekin lan eginez, jakin gabe funtzionatuko duen edo ez. Orain trantsizio sasoi batean nago. Eta bitxia da, nolabait sasoiak markatzen duenaren kontrako bidea egiten ari bainaiz. Oso modako jartzen ari da musika elektronikoa orain, eta neuk pixka bat alde egin dut hortik, beste eremu batera. Arriskatu egin dut, bide batean nindoan eta...

### **Baina el Txef-A ez da amaitu.**

Ez, ez da amaitu. Trantsizio bat da, baina zaila izaten da bueltatzea. Orain gutxiago deitzen didate El Txef-A bezala, ez bainabil oso aktibo. Sua bizirik mantendu behar dut, baina pasatu gabe, beste langintza batean nabilelako. Buruari bueltak ematen dizkiozu, badakizulako edozer dela-eta Aitor Etxeberrriak oihartzunik izaten ez badu eta El Txef-A itzuliz gero, jendeak kritikatu egingo zaituela.

### **El Txef-Ak-k nekatuta bukatu du?**

**Gaua, hiria, emanaldi segidak...**

Nekatu-nekatuta ez dut bukatu, baina beste munduak asko erakarri nau. Iruditzen zait elektronika larregi merkantilizatu dela azken urteetan. Lehen gehiago gustatzen zitzaidan mundu hori, dena baitzen berria niretzat, eta kontu bitxiak izaten ziren asko, baliabide eta egitura askorik behar ez zutenak. Igual deitzen zidaten Rio de Janeiroko arte estudio batetik festa batean jotzeko. Gauza txikiak baina politak izaten ziren. Gero jaialdi handiak sartu dira, eta xarma galdu du niretzako. Lau DJ eramaten dituzte estandar modura, elektronikak ere bere lekua

duela erakusteko, moderno agertzeko, baina kariñorik gabe, soinu probarik ez askotan, edo azken unean, hirira iritsi eta bakarrik sentitzen zara. Batzuetan diskoak jartzen ere ez dizute utziko, USB bat soilik eta dena horrela... aspertu nau.

### **Sistemak jan du elektronikaren mundua?**

Bai, neurri handi batean bai. Publizitate agentziak, agenteak, managerrak... sartu dira, eta agur xarma. Lehen ez zegoen hainbeste, rockaren munduan ohikoa izan da hori, baina azken urteetan izorrratu egin da alde horretatik. Lehen puruagoa zen elektronikaren mundua. Industriarekin desliluraturik amaitu dut, hori da egia.

### **Mundu mailan sona, eta Euskal Herrian ez zara izan hain ezaguna. Gurean elektronikaren kulturaren inguruan ezjakintasuna egon delako edo zuk ere kanpoan aritzeko deliberamendua hartu zenuelako?**

Denetik egon liteke pixka bat. Niri deitu izan didatenean oso gustura joan izan naiz, irribarre handi batekin gainera, baina egia da, orain hasi direla deitzen hainbat lekutatik, adibidez txosnetatik. Eta, pozgarria da hori, baina justu etapa bat ixten ari naiz, eta agian zortzi urte berandu iritsi dira dei eta proposamen horiek. Lehen ez zuen irudi onik musika elektronikoa.

### **Tabuak eta estereotipoak izan dira elektronikaren inguruan.**

Bai, argi eta garbi. Hasteko, erdaldunen musika zen. Horrez gain, garai batean elektronika bakailua zen soilik. Eta, hala balitz ere... Gero zenbait lekutan, hirietan batez ere, elektronika kulturaren es-

parrura erakartzen saiatu dira, eta Euskal Herrian ere horretan ari dira azken hiruzpalau urteetan, museoak, galeriak, jaialdiak... Jendeak ez daki ondo zer den egiten duguna ere, ez baitago hedabide masiboetan ia agerpenik: askok pentsatzen dute, hor tranpaldotxo batean jarri eta bi botoi zapaltzen ditugula, ez dugula konposatzen, eta beste milaka mito. Desinformazioa eta gutxiespena izan dira, musikari bezala ere ez baikaituzte hartu izan. Oso musikazaleek bai, baina orokorrean ez. Tira, ulertu ere egiten dut, DJ bat aurrez aurre ikustea niri ere ez zait bereziki gustatzen musika ez bazait erabat gustagarria.

### **Duela bospasei urtetik zu ere gehiago hasi zinen biltzen inguruko musikariekin, kontzertuak ematen, sortzen. Etxerako itzulera moduko bat izan zen?**

Bai, egiten nuena etxean ere erakutsi nahi nuen, nolabait. Vianan eman genuen kontzertu bat talde osoarekin, eta nioen nire baitarako: "Vianan jo badugu, etxean ere pare bat emanaldi egin beharko dituguzer egiten dugun erakusteko". Hori 2012an edo izan zen. Mozartek jo zuen antzoki batetik deitu ziguten, Vienatik, eta gero Bilbon BBK aretoan eta Kafe Antzokian arituginen. Ordura arte neurere kasa ibiltzen nintzen gehiago, baina beti izan naiz kontzertuetara joatekoa. Inguruko musikariak ezagutu ahala eurekin kolaboratzen eta elkarrekin lan egiten hasi nintzen. Pixkanaka deitu ere egiten zidaten han edo hemen kolaborazio txikiak egiteko. Jendeak bazekien ni elektronikaren nobilela, baina ez zehazki zer egiten nuen. Jakin behar baita musika elektronikoa egiteko ere musika ikertzen dela, gero konposatu ere bai. Baina, tira, pixkanaka bidea egin genuen, eta espero dut datozenentzat baliagarria izatea hori.

**"Elektronikaren loraldi bat ez dakit, baina ari da lehen ez bezalako oihartzuna lortzen"**

Hasieran gaitza egiten zitzaidan, ni ohituta bainengoen neure kasa ibiltzen. Baina gero esperientzia oso aberasgarria izan da; gertuko jendea eta jatorra izan dut alboan. Hori gustatzen zait, eta ikuspegi artistikoa duena, ekarpenak egiten dituztenak dira. Oso hurbileko jendearekin ari naiz lanean beti. Eurek badakite zein estetika gustatzen zaidan niri, eta etengabe ikasten dut beraiekin ere. Hannoten [Mintegia] figura oso inportantea izan da nire ibilbidean. *Markak* egiteko konfiantza osoa izan zuen nigan, eta horrez gain, konexio handia dugu, berezia. Zerbait izaten badut buruan, Hannotek horixe ematen dit musikari modura. Eta berdin gainerakoekin. Beraiek esperientzia handia dute, bandetan jotzen eta abar, horretan nik baino eskarmentu handiagoa dute, eta aldiro ikusten dut.

### **Bitxia da, eta aipatu duzu, zu pixka bat elektronikatik aldendu eta Euskal Herrian jendea ateratzen hasi da, jaialditxoak sortzen, irratsaioak, alegia, mugimendua.**

Nire aurretik ere baziren, jakina, nolabait nire maisuak izan direnak, Asier Balzategi *Balza* eta horrelako jendea. Telmo Trenor, adibidez, ia garaikidea dut, eta banekien bazebilela, orain hasi da gehiagobabarmentzen. Oso figura sendoa sor-

tzen ari da, bertako beste musikari batzuekin elkartzen da, eta izugarri ondo ari da. Horiek batzuk aipatzearen. Loraldi bat ez dakit esan litekeen dagoenik, baina ari da oihartzuna lortzen. Bi alde ikusten dizkiot: bat oso positiboa, ondorengo belaunaldikoek erreferenteak izango dituzte, eta zenbaitek gitarra edo bateria ikasten duen moduan, hurrek akaso nahiko dute konposizio elektronikoa ikasi edo DJ izan. Bestetik, ordea, badago halako errazkeria bat elektronika kutsua daukan edozerekin. Hainbat taldek elektronika ukitutxo bat sartzen dute modako dagoelako, edo soinu modernoago bat izateko asmoz.

### **Sintetizadore pare bat sartzea ez dela nahikoa elektronika egiteko, beraz?**

Hori da kontua. Nahiago nuke musika elektronikoa beste bide bat hartuko balu, bilaketatik, esperimentaziotik, kultura propio batetik, baina gehiago doa poparen ildotik. Hori da jazzta deitza kanta pop bati bi akorde jazzistiko sartzetazatik. Beste edozein musika tresna edo generoren atzean bezala ikasketa

bat behar du elektronikak, ikerketa bat. Musikari asko entzuten dut esaten: "Elektronika sartu dugu". Nola sartu duzue, bi astetan ikasita? Askotan da berniz modernotxo bat emateko soilik.

### **Nola izan da bertako musikariak ezagutzea, eta kolaborazioak, elkarlanak... Sortzaile bezala nola bizi izan duzu?**

Hasieran gaitza egiten zitzaidan, ni ohituta bainengoen neure kasa ibiltzen. Baina gero esperientzia oso aberasgarria izan da; gertuko jendea eta jatorra izan dut alboan. Hori gustatzen zait, eta ikuspegi artistikoa duena, ekarpenak egiten dituztenak dira. Oso hurbileko jendearekin ari naiz lanean beti. Eurek badakite zein estetika gustatzen zaidan niri, eta etengabe ikasten dut beraiekin ere. Hannoten [Mintegia] figura oso inportantea izan da nire ibilbidean. *Markak* egiteko konfiantza osoa izan zuen nigan, eta horrez gain, konexio handia dugu, berezia. Zerbait izaten badut buruan, Hannotek horixe ematen dit musikari modura. Eta berdin gainerakoekin. Beraiek esperientzia handia dute, bandetan jotzen eta abar, horretan nik baino eskarmentu handiagoa dute, eta aldiro ikusten dut.

### **Sortzaile modura, ordea, garrantzitsua da ahots propio bat aurkitzea. *Nihilism part I* diskoan aurkitu duzu?**

Ez dakit, zaila egiten zait nire ahots edo lengoia propio bat identifikatzea. Asko gustatzen zaizkit ahots oso markatua duten artistak. Ruper Ordorika adibidez: bere kantak oso dira bere kantak. Nik, ez dakit, oso ipurterrea naizelako edo oraindik gaztea naizelako, eta hainbeste nabilenez ikertzen, zaila egiten zait ahots oso finkoa izatea. Hala ere, naba-ritzen dut zerbait badela lan honetan, oso ondo definitzen ez dakidana, eta hurrengoan ere igarriko dena, antzeko bidetik edo... Sonoritate, estetika, zimurtasun antzeko bat izango du. *Markak*-en ikusi zen zertxobait, oraingoan apur bat gehiago, eta hurrengoan... beno, auskalo, akaso zerbait erabat desberdina izango da, baina...

### **Nola definituko zenuke zeure musikaren zimurtasun hori? Misterio puntu batek definitzen du?**

Izan liteke antzeko zerbait; badu zerbait klasikotasunetik, baina baita ezerosotasunetik ere, alanbrean dabil sonoritate hori. Diskoa hasten da piano soinu batekin, neoklasiko samarra, avant-garde ukitu batekin, zaratatsua eta eszentrikoa, eta gero bat-batean rock kanta estandarrago bat, eta gero melodia lasai bat... Baina niretzat badago halako hari bat.

### **El Segell de Primavera zigilu kataluniararekin atera duzu lana, baina publizitate eta zabalkunderako Mute etxe entzutetsu britainiarra dago. Nolako izan da hartu-eman?**

Muterekin izan dudana harremana eta kontratua eskola zaharrekoa da, eta jendeak flipatu egiten du horrekin, baldintzak oso onak direlako. Gaur egun apenas sinatzen da horrelako kontraturik, 85-15eko portzentaian. Hauekin Depeche Mode, Nick Cave eta gisakoak ibiltzen dira. Konpainia handia izanagatik, uste dut harremana ona dela, eta erabiltzen dudala nire musika ahalik eta lekuri gehienetara iristeko, baina nire burua saldu gabe. Ez goaz jaialdi handietara, zaintzen dugu harremana. Ez gara sartu zirkuituaren gurgil kapitalistan, eta horrek ere badu garrantzia niretzat. Espiritu *undergrounda* badaukat eta nahi dudana da nire musika zabaltzea. Portzentaia handiena niretzat da, zabalkundean laguntzen didate eta ez daukat beste loturarik. ●